

LIBURUXKA DIDAKTIKOA

SARA

ikusi Mikusi

10:00

19:00

8
URRIAK

9

HAUR
ETA GAZTE
LITERATURA AZOKA

2021



bizkaio

URRIAREN 8an ESKOLEN EGUNA

AURKIBIDEA

1/ Aurkezpen Orokorra

a/ Zer da IkUsl mlkUsl	3
b/ Zendako IkUsl mlkUsl	3
d/ Helburuak	3
e/ Partaideak	4
f/ Asmoak eta gogoak	5

2/ Euskal Haur eta Gazte Literatura

a/ Historikoa Fr.	6
b/ Historikoa E.H	7
d/ Gaurko egoera	8
e/ Europako Haur eta Gazte Literatura Azokak	8

3/ Ikusi Mikusi 2021

a/ Antolaketa orokorra	9
b/ Eskolen eguna	10
d/ Familien eguna	13

4/ Elementu Praktikoak

a/ Egutegia	14
b/ Eskolen bete beharrak	14
d/Izen emate taula	15





1/ AURKEZPEN

OROKORRA

a/ Zer da Ikusi mikusi ?

IkUsI mlkUsI proiektuak, euskara hutsean izanen den lehen HAUR eta GAZTE LITERATURA AZOKA, urteroko hitzordua sortzea du helburu. 2020-ean, koronabirus krisiarengatik, lehen Ikusi Mikusi bertan utzi behar izan genuen. 2021-ean, urriaren 8a eta 9an izanen da.

SARA herrian ospatuko da ekitaldia, non ia 35 urte daramatza Idazleen Biltzarra antolatzen.

Gaur egun, ez da egina izan haur eta gazteeri begira halako azokarik Euskal Herrian!

Mugaren bi aldeetan, gazteentzako liburu azokak daude frantsesez edo gaztelaniaz, euskara apur batekin, edota euskal liburu azokak, helduentzako, haurrentzako eta musika eta literatura nahastuz ...

Lehen aldikotz, 2021-eko urriaren 8a eta 9an, Sarako herriak atea zabalduko ditu, haur eta gazte literatura jaialdiari, ostiralean eskolei, eta larunbatean familiei.

b/ Zendako Ikusi mikusi ?

Euskal Haur eta Gazte Literaturari lehio berri bat zabaldu nahi dio IKUsI mlkUsIk. Gertaera hunek, gizartearen dagoen eskas eta behar bat betetzen du.

Euskal Herri Osoko ikasleak (eskola egunean), eta jendartea (famili egunean), elkartu nahi ditu, Euskaraz den Haur eta Gazte Literaturaren inguruan : iparraldea, hegoaldea eta Nafarroa.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai altzarien aldetik, espazioaren antolaketa aldetik, baita ere jarduerak eta programatutako ikuskizun eta tailerren aldetik, adinen arabera.

Forma ibiltariak alderdi guztietan betetzen du jaialdiaren kontzeptua, eskola eta familientzat pentsatuta baita.

Haur eta gazte euskal literatura profesional guztiak, Euskal Herri osotik (Iparralde, Nafarro eta Hegoaldea) presente izango dira: liburuen argitaletxeak (bakarrik euskarazko liburuak), idazleak, ilustratzaileak, liburu-saltzaileak, liburuzainak, kondalariak eta artistak.

d/ Ikusi mikusiren Helburuak :

* Euskal haur eta gazte literatura, gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusietakoa plazara jalgitzea eta sustatzea, eskolako gazteei, eta publiko orokorrari hobeto ezagutzera emateko.

* Euskal herri osoko (iparralde, hegoalde eta Nafarroa) ikasleak (eskolaren egunean), eta jendartea (familien egunean) elkartzea eta gurutzatzea, literaturaren inguruan.

* Ume ttikiak, haurrak eta gazteak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta idazteko aukerak ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.

* Familian, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi daitezen, albumek eskaintzen duten irakurketa eta idazketa jolasei esker.

* Euskal herri lurralde osotik, euskal haur eta gazte literaturarekin lotura duten egitura profesionalak inplikatzeko.



e/ Partaideak :

Hiru euskal bazkideek: GALTZAGORRI ELKARTEA, PAMIELA eta KIRIBIL, haurrentzako literaturan espezializatuak, ahaleginak eta ezagutzak kontzentratzen dituzte, EUSKARAZKO HAUR eta GAZTE LITERATURA ekitaldi hau, nagusia eta epe luzera gertaera paregabea izan dadin.



GALTZAGORRI, Donostian kokatua den 30 urte dituen elkarte da, hegoaldean, euskal haur eta gazte literaturaren erreferentzia bilakatu dena. Haur literatura sustatzen, zabaltzen eta garatzen du, gizarte zibilaren arlo guztiak sentsibilizatuz : egileak, idazleak, ilustratzaileak, profesionalak, familiak, eskola munduan haurrak eta irakasleak.



PAMIELA argitaletxea, Nafarroan kokatzen da, eta euskarazko lehen albumen edizioan aitzindaria izan da. Gaur egun, munduko klasiko ezinbesteko lanak euskaratu ditu. Literatura hau bultzatzen jarraitzen du, urtero, Etxepare saria irabazi duen liburua argitaratuz.



KIRIBIL Senperen kokatua den elkarte da, eta proiektu artistikoak garatzen ditu, kultura eskaintzatik urrun diren publikoentzat, hala nola ñiñiak, haurtzaindegietan, adineko jendeak edota gaixotuak, zahar-etxeetan, eta gerrako errefuxiatuak akanpalekuetan... Bere zuzendari artistikoa: Amaia Hennebutte, euskarazko albumen idazle-ilustratzailea denez, (gaur egun 11. albuma argitaratua dauka), elkartearen ardatz artistiko nagusietako bat euskal haur literatura bilakatu da, modu naturalean.

Gertaera hunen inguruan, jada bazkide publiko asko gogotsu biltzen dira : Sarako Herria, Akitania Euskadi Nafarroa EuroLurraldea, Euskal Hirigune Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa, Euskal Kultur Erakunde, Departamendua, besteak beste.



f/ Gogoak eta asmoak :

Eskola egunean zehar, aurre-eskoletako (Ama eskolako), Lehen Hezkuntzako (Lehen Mailako) eta DBH-ko (Kolegioko) ikasleak, Euskal Herri lurralde osoetik (Iparalde, Hegoalde eta Nafarroa) Saran elkartuko dira, ostiralarekin.

Erabat haiei dedikatutako eguna elkarrekin igaroko dute : euren sorkuntzen erakusketaren bisita egin, euskal liburuak ezagutu eta erosi, euskal idazle eta ilustratzaileak topatu, ikuskizunak ikusi, tailerretan parte hartu, eta haien sorkuntzaren aurkezpen kolektiboa besteei eskaini.

Familiaren eguna, momentu berezia eta goxoa izanen da, irakurketa, idazketa eta sorkuntza munduan murgilduz eta gozatzuz, Euskarazko liburuaren inguruan, guraso eta haurren artean une atsegina izanen da: umeentzako antolatutako liburu xokoetan gozatu, argitaletxe standetan ibili, animazio-tailerretan parte hartu, egun osoan zehar ikuskizunak ikusi, idazle eta ilustratzaileek egindako mintzaldiak eta aurkezpenak entzun ... guztia euskaraz soilik.

Asmo handiko proiektua da IkUsI mIkUsI :

- * Euskal haur literaturan, idazle-ilustratzaile gazteek egindako sorkuntza eta proposamen berriak nabarmentzea du helburu.
- * Euskal lurralde guztiaren egitura artistikoak nabarmendu nahi ditu, zuzenezko ikuskizunetan programatuz.
- * Profesional guztien artean ezinbestekoa den ekitaldi-topaketa sortzeko asmoa dauka, gertaera hau garatzeko, eta urtetik urtera, helburu mantentzea.
- *Euskarazko haur literaturaren garapena eta hazkundera sustatzen du.
- *Urtez urte, Euskal Haur eta Gazte Literaturaren ekitaldi ezinbestekoa, eta erreferentzia bilakatzea du asmoa.

2/ EUSKAL HAUR eta GAZTE LITERATURA



a/ Historikoa Frantzia

Frantzia herrian, betidanik HAUR LITERATURAK toki handia izan du gizartean.

18. mendean hasi zen haur literatura.

Garaian, haurrei zuzendutako literatura moralista eta pedagogo da: ixtorio guztiak biziki moralak ziren, eta liburuetan agertzen ziren pertsonaiak, haurrendako, irakurlearendako, modeloak izan behar ziren!

19. mende erdian, liburuetan, agertu dira lehen haur pertsonaiak konplexuagoak, eta trabagarriak: Jean-Paul Choppart, izan zen lehenena: Louis Desnoyers-ek asmatu, (lehen gazte elaberria) 1836-an. (hegoaldean ez da ezagutzen, gaztelaniaren eraginez, Lazarillo de Tormes eleberria zabaldua dugu, 1550. urtekoa)

Anti-heroea zen benetan: fisikoki itsusia, gainera mila zozokeri egiten...

Gero Pinocchio, Tom Sawyer... eta beste, inspiratu dituenak.

Bi mundu gerren artean, haur pertsonaiak autonomia eta libreagoak

agertzen hasten dira : ezagunena Fifi Brindacier, Pipi Kaltzaluze bezala itzuli da hego Euskal Herrian, neska suediarra, eskandaloa eta debekatua izan zena luzaz. Gezurrari, irudimenari eta sorkuntzari ate bat zabaldu zen orduan! Haur zintzo eta haur gaiztoaren dikotomia amaitu zen.

60. hamarkaden bukaera, eta sustut 68. urteetan, zinez aldaketa sendi da : haurra BILUZIK agertzen da ! (Sendak album ilustratuaren aitatzat hartzen dena In the Night Kitchen liburuan 1970. urtean kaleratua lehen aldiz haur bat biluzik agertzen da)

Gai berri batzu jorratzen dira = burasoen bereixketa, heriotza, haurren trauma eta beldurrak... Lehen haurra « babestu » nahian aipatzen ez zirenak, orain haur literaturan sartzen dira!

Azkenean, gaur egun, erran deza-kegu, haur literaturak gizartearen bilakaera jarraitzen duela!



b/ Historikoa Euskal Herrian

Euskal-herria aipatzerakoan, iparalde eta hegoaldeak bereixi behar dira.

Erran gabe doa, Iparraldean, Frantzia kulturaren eragina izanki, haur literatura kulturaren sartua dela: burasoen albumak erosten dituzte, arratsetan haurrei ipuinak irakurtzen dizkiete, eskoletan, albuma oinarritzko lan tresna ezinbestekoa bilakatu da...

Hegoaldean, ez da egoera berdina, eta haur literatura, ez da oraino gizarte kulturaren barneratua, ere ezta erakaskuntzan....

Haur Literatura, Euskara Hizkuntzaren egoerari lotua izan da. Erran bezala, Frantzia, 1960. urteetan, garatuz joan da haur literatura, eta sekulako aberastasuna eta aniztasuna izan da geroztik.

Hego Euskal herrian, 80.hamarkadan hasi zen haur literatura garatzen euskararen normalizazioarekin batera ...

Ondorioz, euskal haur eta gazte literaturan "beranta" handia zegoen.

2000. urteetan, 5 urte goitiko haurrentzat, euskarazko liburu eskaintzak badu zer erakutsi. Aldiz 0-5 urte artekoentzat, sorkuntza propiorik, deus ez zegoen! Geroztik, emeki-emeki garatuz doa, argitaletxe batzuei esker.

Gaur egun, bagoaz munduko obra kanonikoak euskaratzen (oraindik ez dago Altxor Uhartearen edizio zaindu bat gazteentzat, soilik helduentzat) eta sekulako garapena ezagutzen du Euskal Haur eta Gazte Literaturak, sorkuntza arloan ere, idazle eta ilustratzaile berri eta gazteei esker.

d/ Gaurko egoera

Edalontzia betetzen ari den seinale, egun, sorkuntza aberatsa eta zabala dago euskal sortzaile ugarien artean, batez ere ilustratzaile ofizioari erreparatuta. Hor dugu, adibidez, Miren Asiain, Iban Barrenetxea, Maite Gurrutxaga, Eider Eibar, Maite Mutuberria, Elena Odriozola, Leire Salaberria... Komikia mundua ari da mugitzen eta egile eta irakurle ugari erakartzen: Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Asisko Urmeneta, Julen Ribas, Dani Fano...

Idazle gazte ugari ari da plazaratzen: Leire Bilbao, Oihane Fernandez, Ana Jaka, Ramon Olasagasti, Ruben Ruiz, Castillo Suarez...

e/ Europako Haur eta Gazte Literatura Azokak



Salon du Livre et de la Presse Jeunesse Montreuil :

Haur eta gazte literatura azoka garrantzitsuena, Frantzia geratzen da, Montreuil hirian, urte guziz, azaro amaieran.

Aste oso batez, publikoa eta munduko profesionalak biltzen dira, eta sorkuntza berriak plazaratzen dira, ikuskizunak eta tailerrak antolatuak dira, idazle eta ilustratzaileak argitan emanak dira....

Eskolen eguna, familien eguna, baita ere profesionalen antolatuak dira.

Literatura sorkuntza eta berrikuntza guztiak agerian jarriak dira.

Munduan zehar, ezinbesteko hitzordua bilakatu da.



Bologna Children's Book Fair :

Bigarren hitzordu garrantzitsuena da apirila hastapenean Bolognan antolatzen den azoka, urte guziz. Baina azoka honetan, gehiago argitaletxe eta marrazkilarien arteko topaketa profesionalak dira antolatuak. Ez da irekia publiko zabalari (eta sustut haurrei).

Bienále Ilustrácií Bratislava BIB :

Ilustrazioen nazioarteko azoka da, 1966. urtetik bi urtetik behin ospatzen da Eslovakian. Haur eta gazteen liburu eta marrazkiak erakusten dira. Andersen sariarekin batera ospetsuenetakoa da.

Euskal irudigile batzuek bertan Urrezko Sagarra Saria jaso



Buchmesse Frankfurt :

Urriantolatzen den azoka mundiala honetan, gehiago profesionali zuzendua da, argitaletxeen arteko egile eskubideen baimenen salmenten egiteko tokia bilakatu da.



dute, adibidez Asun Balzolak 1985. urtean eta Elena Odriozolak 2015. urtean.

3/ IKUSI

MIKUSI 2021

a/ Antolaketa orokorra

Bi egun ezberdin :

- **ESKOLEN eguna** Urriaren 8an.
- **FAMILIEN eguna** Urriaren 9ean.

- **Tokia** : Sara herrian, Lapurdin kokatua, muga ondo-ondoan.

- **Forma ibiltaria** : sala ezberdinak, aterpeak, gune goxoak, ostatuak...

Haur eta Gazte Literatura mundua :

- euskal argitaletxeak
- (bakarrik euskara hutsean diren liburuk),
- idazleak,
- ilustratzaileak,
- tailerrak,
- topaketak,
- mintzaldiak,
- ikuskizunak,
- liburuz gozatzeko guneak... haur eta gazteei dedikatua, egokituak eta aurrepentsatuak.

Sartzea orokorra : Dohainik

Ikuskizunak : 3 €

Izen emateak : ikuskizun eta tailerretan, beharrezkoak dira (tokiak mugatuak baitira).



b/ Eskolen eguna : Urriaren 8a, Ostirala

Eskolak, IKUSI-MIKUSI azokara etorri aitzin, aurretik proiektuan sartzen eta inplikatzeko dira.

Horretarako, bi aukera dituzte : **bat edo bestea, edo biak egin ditzakete !**

1. aukera : Ikasgela bakoitzak idatz lan EDO/TA grafiko bat sortzen du.

Gaiari lotuta :

- * idatz lan bat sortzen dute hurrek (olerki, elaberri, ipuin, liburu...),
- * edo lan grafiko bat sortzen dute (afitxa bat, ilustrazioa bat...),
- * edo idatz lan grafiko bat (testua eta ilustrazioa, album ilustratu bat, olerki ilustratuak...)

Aurtengo gaia : "IKUSI-MIKUSI"

Neurriak : gehien bat A3

Lan guztiak aurretik (epe-muga : irailaren 30a), SARAKO HERRIKO ETXERA helarazi beharko dira.

Ekoiztuak izanen diren lan guztiak, ERAKUSKETA gunean agerian erakutsiak izanen dira, publikoari zabaldua.

Hurrek beren ekoizpena aurkitzen eta ikusten ahalko dute, azokara etortzerakoan.

Azoka amaituta, gogoia izanen duten eskolek, beren lana berreskuratzen ahalko dute, Sarako Herriko Etxean.

2. aukera : Eskolen AHO AURKEZPENAK.

Gogoia duten ikasgelek, beti gaiari lotua, aho aurkezpen bat presta dezakete : irakurketa, bertsu, antzerkitxo, kantu....

Aurtengo gaia : "IKUSI MIKUSI"

Iraupena : 10 minuta gehien-gehienik

Publikoa : bederen beste bi ikasgela aurrean aurkeztuko dute lana, eta zuzenean grabatua izanen da,

KANALDUDE Tebistaren bidez.

Lau aurkezpen aukerak, hauek izanen dira :

10:00 / 11:00 / 14:00 / 15:00



IKUSKIZUNAK

adinka

TTIKIENTZAT (7 urte arte):

“OA-HUETAK”

“Lodikroko” obran oinarritua,
Elirale Konpainiak
aurkezturik,

30 minuta

Dantza

10:00 / 12:00 / 14:00

HAURRENTZAT (8-12 urte) :

“VADEMEKUN”

Literatura orokorrean oinarritua,
Zirkozaurre Konpainiak
aurkezturik,

45 minuta

Zirkoa

10:00 / 12:30 / 15:00

KONZERTUA

GAZTEENTZAT (+12 urte) :

“ODISEA”

Tradizioan oinarritua,
Pantxix Bidartek aurkezturik,

45 minuta

Musika

10:00 / 12:00 / 14:00

Idazle ilustratzaileekin TOPAKETAK

Idazle edota ilustratzaileek
beren lan bat, obra bat,
hurrei aurkeztuko diete, eta
ondoren, gazteek, galderak
pausatzen ahalko dizkiete.

12:00 / 13:00

IZEN EMATEA DERRIGOR- REZKOA !

Egunean parte hart-
zeko zein ekitaldi
bakoitzarendako :

Aho aurkezpena,
ikuskitzuna, tailerra,
topaketa....

edo zoin

ekitaldiarendako,
aurretik eskolen izena

ematea

beharrezkoa

izanen da.



TAILERRAK

adinka

DENENTZAT :

“ZURE LIBURUA SORTU”

Haurrek beren sorkuntza
idazten eta ilustratzen hasiko
dira....

Eta etxean, edo eskolan
amaituko dute.

Kiribil Elkarteak aurkezturik.

10:00 / 12:00 / 14:00

HAURRENTZAT (6-12 urte) :

“ARETO LITERARIOA”

Itsaspeko Bihotzak gaia
jorraturik, haurrak jolas litera-
rioan sartuko dira.

Galtzagorri Elkarteak aurkez-
turik.

10:00 / 12:00 / 14:00

GAZTEENTZAT (+12 urte) :

“APP INFORMATIKA”

Amattoren Uzta obran oi-
narriritua, gazteek jolasteko
parada izanen dute, baita ere
bukaera berri bat asmatzeko.
Galtzagorri Elkarteak aurkez-
turik.

10:00 / 12:00 / 14:00

**EUSKAL HAUR ETA GAZTE
LIBURU GUZIAK SALGAI
ARGITALETXEEN MAHAINETAN !**



IKUSKIZUNAK

TTIKIENTZAT (7 urte arte): “OA-HUETAK”

Oa-huetak-en hiru interpreteek, Chloé, Oihan eta Paxkalek, Eliraleren selauruan, Lodikroko liburu haundia (Amaia Hennebutte-k sortutako obra) atzematen dute. Altxor bat aurkitzen duten haurrak bezala beraien gazteriaren suhartasunarekin berenganatzen dute liburua. Bizia eta poetikoa, Oa-huetak errotik mugitua eta berritua den emanaldia da. Euskal hizkuntzaren hitzek, interpreteen ahoetan, gorputz dantzarien ahalmenak idekitzen dituzte baita giro musikal harrigarri bezain ainitz bat.



HAURRENTZAT (8-12 urte) : “VADEMEKUN”

Liburutegi batean girotuta dagoen famili-ikuskitzuna, sorkuntzarako ate bezala irakurketa sustatzen duena. Laburpena:


Tadeo, pertsonaia bitxi zein maitagarria, irakurle amorratua da. Denbora asko ematen du liburueen irakurketan murgilduta. Orrialde bakoitzean magia eta ilusioz betetako munduetara eramaten duten milaka istorio aurkitzen ditu. Bidaia horietan irudimena, sormena eta kreatibitatea lantzeko gakoak aurkituko ditu. Ikuskizun honetan ilusioa eta magia akrobazia eta eskujokoekin nahasten dira fantasiako mundu bat irudikatzen.

GAZTEENTZAT (+12 urte) : “ODISEA”

ODISEA, Ulisesena ala euskaldunena, ezberdina ote? Pantxix Bidart musikariak, euskal Ulisen Odisea gaurkotu du: geure kulturako sustraletan oinarriturik, obra ikaragarri garaikidea sortu du!

Pantxix BIDARTEk, hainbat euskal poeten obrak gorpuztu ditu: Aristi, Otamendi, Bilbao, Lete, Artzea..., batzuk musikatu, batzuk zuzenean kantatu, batzuk jatorrizko grabaketak eskainiz. Nola heroia bilakatu? Zoin da emaztearen tokia? Bikotearen bilakaera? Transmizioa? Bakearen bidea?... hainbat galdera, hainbat lehio zabalduak....

Poesia haria, musika ditarea, eta Pantxixen boza jostuna... Hunkigarria, modernoa, sakona, ausarta, euskal sustraletatik bihotzera zeharkatzen gaituen obra unibertsal musikal originala: harri bitxi bat!





DENENTZAT : “ZURE LIBURUA SORTU”

Haur bakoitzak, bere liburua sortzen, asmatzen, idazten eta ilustratzen hasiko da tailer huntan.

Ohartuko da ere, ez dela hain errexa eta laburra liburu bat idaztea !

Formatu liburu ezberdinen artean, umeak berea hautatzen ahalko du, eta gero, gaiari lotuta, edota askatasun handian, idazketa eta ilustrazio munduan sartuko da.

Bere obra eskolan edota etxean jarraitzen eta bukatzen ahalko du.

HAURRENTZAT (6-12 urte) :

“ARETO LITERARIOA”

Itsaspeko bihotzak aretoan ibilbide didaktiko bat osatzen da, itsaso batean kokaturik dauden guneak bisitatu eta bertan proposatzen dena landuz. Gune bakoitzean lantzen den eduki ideologikoa, artearen bitartez egi bihurtuko da. Ilustrazio, artisauelementu eta liburuen bitartez lortzen da helburu hori eta txoko bakoitzean, modu desberdinean lantzen da edukia: ipuintxoak kontatuz, ikus-entzunezkoak ikusiz, abestitxoak kantatuz, jolasak eginez...

Hala, besteak beste, Aitziber Alonsoren lanaz gain, Elena Odriozola eta Eider Eibarren ilustrazio lanak ere biltzen ditu Itsaspeko bihotzak aretoak.



GAZTEENTZAT (+12 urte) :

“APP INFORMATIKA”

“Amattoren Uzta” euskarazko haur literaturako obra klasikoaren app-a da Amattoren Uzta App-a. Mayi Ariztiak Ipar Euskal Herriko ipuin kontalari zenbaiti entzun eta bildutako ipuinak 1934an argitaratu ziren lehendabizikoz. XXI. Mendean, Galtzagorri elkartearen Klik-Klasikoak proiektuari esker, Patxi Zubizarretak gaurkotu eta egokitu zituen eta Maite Gurrutxaga ilustratzaileak ilustratu.

d/ Familien eguna : urriaren 9a, larunbata

Familien eguna, burasoek beren umeekin goxatzeko aukera da, euskal literaturaren munduan murgilduz. Ikuskizunak, tailerrak, idazle-ilustratzaile topaketak, liburuen salmentak, loaldi musikalak... eguna goxoan eta euskaraz iragaiteko aukera paregabea !



4/ ELEMENTU PRAKTIKOAK

- Ikusi Mikusira jiteko, **BEHARREZKOA DA** izen emate taula betetzea **IKASGELAKA** : ikasgela bakoitzak taula bat betetzen du.
- Ez baduzue PDF formatuan imprimatu eta bidali nahi, loturan atxemanen duzue taula, **WORD** formatuan.
- Oroitarazten dizuegu bazkaria zuengain dela (haurrek pik-nika ekarri beharko dute), eta garraioaren antolaketa ere.
- Gurpiletan diren haurrendako, pasabideak antolatuak izanen dira.
- Ikuskizunen ordainketa ikusi mikusiri egin beharko da, edo diru transferentzia eginez, edo txeke bat bidaliz : **IKUSI MIKUSI Sarako Herriko etxea, BP 16, 64310 Sara**

a/ Egutegia

Ekainaren 30a :
Eskolen izen-emate epemuga

Irailaren 30a :
Ikasgelek beren idatz lan grafikoak bidaltzeko epea, Sarako Herriko Etxera

Urriaren 8a :
Eskolen eguna

Urriaren 9a :
Familien eguna

b/ Eskolen bete beharrak

1/ IKUSI MIKUSI-n izena eman (ekainaren 30a aitzin). Ikus IZEN EMATE taula edo ikusimikusi.eus

2/ Autobusa edo garraioa antolatu.

3/ Idatz lan edota grafikoa egingo duten eskolek, Sarako Herriko etxe edo udaletxera helarazi beharko dute beren lana, irailaren 30a aitzin.

IKUSI MIKUSI
Sarako Herriko etxea,
BP 16,
64 310 Sara



d/ Izen emate taula

ESKOLA : HERRIA :

PROBINTZIA :

e.maila tel. zenbakia

Erakasle arduradunaren izena eta deitura :

e.maila tel. zenbakia

IKASGELA :

ikasleen adina : Euskara maila :

KOPURUAK :

haurren kopurua : Helduen kopurua :

IKUSI MIKUSIN PARTE HARTZEA : Ikasgela bakoitzak bi aukeren artean, BEDEREN BAT hautatzen du :

Zure ikasgelak idatz lan edota grafiko bat sortuko du ?

Bai Ez

Zure ikasgelak AHO AURKEZPEN bat prestatuko ote du ?

Bai Ez

Aurkezpen ordua zehaztua izanen zauzue mailez.

Zure ikasgelak ikuskizun bat ikusi nahi ote du ?

“OA-HUETAK” 10:00 12:00 14:00

“VADEMEKUN” 10:00 12:30 15:00

“ODISEA” 10:00 12:00 14:00

Zure ikasgelak TAILER batean parte hartuko ote du ?

“ZURE LIBURUA SORTU”

10:00 12:00 14:00

“ARETO LITERARIOA”

10:00 12:00 14:00

“APP INFORMATIKA ”

10:00 12:00 14:00

Zure ikasgelak idazle-ilustratzaile topaketa batean parte hartuko du ?

12:00etan 13:00etan



Harremana



IKUSI MIKUSI
www.ikusimikusi.eu
info@ikusimikusi.eu



KIRIBIL Konpainia
info@kiribil.net

GALTZAGORRI Elkarte
galtzagorri@galtzagorri.eu

